

c) Aniztasunari emango zaion erantzuna eta ikaskuntzaren aurrerabidea planifikatzea

1. maila: Oinarritzkoa

Programazioak ez ditu ikasleen helburuen betetze-maila ezberdinak islatzen. Curriculum-egokitzapenen edo ikaskuntza-erritmo eta -estilo ezberdinen erreferentziak falta dira.

Ez dago tarteko ebaluaziorik, ez ikaskuntzen aurrerabideari edo aurkitutako zailtasunei buruzko oharren, prozeduren eta ebidentzia-iturrien erregistrorik.

2. maila: Garatze bidean

Plangintzan aurreikusten da ikasle batzuek eritmo ezberdinean egingo dutela aurrera, eta, horregatik, beharbada, egokitzapenak egin beharko zaizkiela denbora, materialetan, metodologian eta are curriculumean.

Laguntzako edo aholkularitzako irakasleekin (pedagogia terapeutikoa, aholkularia, orientatzailea...) lankidetzan aritzea eta zailtasunak edo ikaskuntza-eritmo ezberdinak dituzten ikasleentzako urteko edo hiruhilekoko esku-hartzeak aurreikusten ditu.

Tarteko ebaluazioak eta ikaskuntzen aurrerabideari edo aurkitutako zailtasunei buruzko oharren, prozeduren eta ebidentzia-iturrien erregistroa planteatzen dira.

3. maila: Garatua

Programazioak askotariko ikaskuntza-helburuak plantatzen ditu aniztasunari erantzuteko. Ikasle guztiek ikaskuntzaren aurrerabidea lortzeko baliagarriak diren estrategiak, heziketa-ibilbideak eta baliabide inklusiboak aurreikusten ditu (ikasgela arruntean irakasleak edo hezkuntzako langileak egotea, maila ezberdinen arteko laguntza-taldeak, etab.).

Tarteko ebaluazioak egiteko une ugari proposatzen dira, eta beste irakasle batzuekin erkatzen dira, beharrezkoa bada, sekuentzia didaktikoa berrantolatzeko.

4. maila: Aurreratua

Programazioak indartze-neurriak aurreikusten ditu, zailtasunak dituzten ikasleek beren helburuak bete ditzaten eta curriculumeko helburuetatik haratago doazen helburuak dituztenek gehiago sakondu dezaten.

Lankidetzak-estragiak aurreikusten dira gaitasunak garatuen dituzten ikasleek zailtasunak dituzten ikasleen ikaskuntza-prozesuan lagundu dezaten.

Tarteko ebaluazioa egiteko une ugari aurreikusten dira zehaztasunez neurtzeko ikasle bakoitzak planteatutako helburuekiko egin duen aurrerabidea. Emaitzak beste irakasle batzuekin eta ikasle bakoitzarekin aztertu eta analizatzen ditu. Zailtasun indibidualak identifikatzen ditu eta, beharrezkoa bada, sekuentzia didaktikoa ikasle bakoitzaren arabera berrantolatzen du.

Balio erantsi handia duten antolaketa-estragia original eta sortzaileak erabiltzen ditu.